

## Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

## Nokia, connecting paper



Ezkerrean, Nokiaren egungo egoitza nagusia. Alboan, Nokia gurpilen iragarkia. Goian Fredrik Idestam Nokiaren sortzailea.

**FINLANDIA, 1865.** Fredrik Idestam izeneko meatze-ingenariak papera egiteko errota ipini zuen Tammerkoski ibaia ertzean, Tampere hirian. Garai hartan Finlandia Errusiar Inperioaren barruan zegoen oraindik, 1918ra arte ez baitzuen independentzia lortu. Baina industriak bultzada handia izan zuen eskualde horretan, eta gerora Tampere *Finlandiako Manchester* ezizenaz egin zen ezagun. Eztanda industrial horretan, Idestam ez zen atzera geratu. Alderantziz, errota hartatik ateratako papera 1867ko Parisko Erakusketa Unibertsalera eraman zuten, baita brontzezko domina irabazi ere.

Orduan, beste errota bat martxan jartzea erabaki zuen Idestamek, Nokianvirta ibaiaren ertzean. Ibaiak izen hori zeukan, inguru horretan nokia izeneko lephahoriaren antzeko ugaztun txiki asko zebiltzalako. Eta Idestamek izen hura ipini zion bere enpresari.

Europako industrializazioak paper eta kartoi eskaera izugarri handitu zuen. Eta Nokia proportzio berdinean hazi zen. Etengo ez zen hazkunde hartan, beste bi enpresa izan zituen lagun energia hidroelek-

trikoan hain aberatsa zen lurralde hartan; 1898an sortutako Finish Rubber Worksek lehengai berri bat ustiatu zuen, kautxua, eta gurpilak eta zapatak egiten hasi zen arrakasta handiz; Finnish Cable Works 1912an sortu zen, telegrafo eta telefono sareak indartzeko beharrari erantzuteko. 20ko hamarkadan hasi ziren bi enpresa horiek Nokia izena erabiltzen, ofizialki Nokia taldea 1967a arte sortu ez bazen ere.

70eko hamarkadan, telefonia mundua elektromekanikan oinarrituta zegoenean, Nokiak sekulako arriskua hartu zuen lehen sistema digitala erabiltzean. Baina asmatu egin zuen. 1981ean lehen telefono "mugikorra" —hamar kiloko pisua zuen— egin zuen, eta 1984an, bost kilo besterik pisatzen ez zuen Mobira Walkmanen eskutik, iraultza ekarri zuen. Duela hamar urtetik hona, 1998az geroztik, telefono mugikorren munduko ekoizle handiena da.

Nokiak dagoeneko ez dira existitzen, industrializazio basatiak Finlandiako lakuetan bizi ziren ugaztun igerilari horiek desagerrarazi zituelako. Baina, paradokikoki, *nokia* da mundu guztian suomierazko hitzik ezagunena. ■

## ARRASTOAK

**SIMON BOLIVARREN** heriotzaren 177. urteurrenoko ekitaldia erabili zuen Venezuelako presidente Hugo Chavezek, heriotza horren inguruko zalantzak daudela jakinarazteko. Chavezen esanetan, "zalantzak daude Bolivarren autopsiaren inguruan". Beti ere presidentearen iritzi, garai hartan tuberkulosia ez zen hain hilgarria, eta Bolivar bortxaz hil zuten susmoa dauka, eta ez aipatutako gaixotasunaren ondorioz. Askatzailearen gorpua Caracaseko Panteoi Nazionalako sarkofago batean dago. Orain, Venezuelako Gobernuaren aginduz, sarkofagoa irekiko omen dute, gaur egungo teknikak erabiliz, zalantza horiek argituko dituztelakoan. Hugo Chavezek sarkofago horretan daudenak Bolivarren benetako arrastoak direla ere zalantzan jarri du. Aurrerago ikusiko da ia bi mende geroago berriro ireki den auzi honek zer emaitza izango duen.



Hugo Chavez Venezuelako presidentea.